

noaia



**Atez atekorako ontzien
banaketa aste honetan
egingo dute Zubietan**

**Konfiskatuak izango diren
elkarteen artean da Aitzaga**

**Gure Esku Dago ekitaldia,
iruditan**

San Juanak amaitu berri, hemen dira Santixabeletako festak

Jai-giroak ez du etenik izango

Ondo pasa
Santixabeletan!

Otar-Goxo

E l i k a g a i a k



Santixabel festak ospatzeko
produktu goxoenak!

• harategia • urdaitegia • frutak
• barazkiak • kontserbak • berezitasunak

Zubiaurrenea, nº2 • ☎ 943 36 55 81 • Usurbil

LIZARDI LIBURVENDEA



• IKASTURTE BERRIRAKO
LIBURUAK SALGAI
Oporretarako koadernoak, testu liburuak,
eskolako materiala...

Etxebeste kalea, 1
☎ 943 361 115

Lehenengo 6
erosleentzako,
garaje bikoitza
banakako
prezioan!

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

188.000 € tik



12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpi_n

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1º Behea
20009 Donostia

E.:contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com



Albiste iruditan

Zubietako atez atekorako ontzien banaketa

Ostegun eta ostiral honetan bideratuko du Udalak kuboen banaketa; ekainaren 25 eta 26an, 17:00-20:00 artean Kaxkapen. Herritarrek bere bizilekuko helbidea eman eta trukean, organikoa eta erreusa gaita biltzeko ontziak jasoko dituzte; organikoa konpostatzen dutenek organikoarentzako kubo bakarra; bi kubo, organikoa konpostatzen ez dutenentzat. Baita informazio gida ere.

Uztailaren 1ean abiatuko da atez atekoaren lehen fasea Zubietan, Santuenea aldetik hasi eta herri kaxkora arteko eremuan. Bilketa egutegi eta ordutegia, Usurbilgo bera izango da. Kontuan hartzeko oharra; datorren hilabetetik aurrera atez ateko bilketako erabiltzaileak izango diren zubietarrei, orain arte larrialdi gunea baliatzeko zituzten giltzak desaktibatuko zaizkie.



Zintzilikarioak prest dira. Ekainaren 25ean eta 26an banatuko dira ontziak, Zubietako Kaxkapen.

Erreusaren bilketa, hamabostero

Gogoan izan bestalde, uztailetik aurrera Usurbilgo Udalak erreusa bi astean behin bilduko duela. Orain arte igande goizero biltzen zuen, aurrerrantzean bi igandean behin. Sortzez besteko ordainketa sistema berria abiatu zela urtea bete denean jarriko du indarrean Udalak, aipatu aldaketa. Urtebete honetan bildu dituzten da-

tuak aintzakotzat hartuta erabaki dute erreusaren bilketa maiztasuna murriztea. Datuon arabera, herritarrek hamabostean behin edo gutxiagotan ateratzen dute erreus ontzia, gutxiagotan eta hondakinez beteagoa. Etxeetan banatzekoak dira egunotan, erreusaren bilketan emango den aldaketaren informazioa jasotzen

duen eskuorria, bilketa egutegi berriarekin.

- Informazio gehiago Atez Ateko bulegoan:
- Doako telefonoa: 900 776 776.
- Ordutegia: 09:00-14:30 (astelehenetik ostiralera)
- Helbidea: Puntapax kalea, 10 behe. Usurbil
- E-maila: atezate@usurbil.eus

Laburrean

Alokairu sozialeko etxebizitzetan izen-ematea

Gernika ibilbidea 13 kaleko 6 udal etxebizitzetan izena emateko epea amaitzeaz da. Eskabide-orriak eta hautatze-prozedura arautuko duten oinarriak Usurbilgo Udaletxean eskuratu daitezke. Informazio gehiago: usurbil.eus

Hilabeteko azken ostiraleko elkarretaratzea

Euskal presoek eskubideen alde, Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deituriko elkarretaratzea ekainaren 26an, 20:00etan Mikel Laboa plazan. Santxabel jaien baitan, elkarretaratzea uztailaren 4an. 20:00etan, Askatasuna plazan.

Ordutegi aldaketa Sutegi udal liburutegian

Ekainaren 29tik irailaren 4ra arte, astelehenetik ostiralera goizez zabalduko dute, ordutegi honetan: 09:30-14:00 artean.

Larunbatetan itxita egongo da liburutegia, ekainaren 19tik irailaren 26ra.

noqua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil

943 360 321 /// elkarte@noqua.eus /// www.noqua.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatorak:
Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitate@noqua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,
erredakzioa@noqua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Olatz Rezola,

Arantxa Zulaika.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainara
Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiet, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon
Etxabe, Alazne Begiristain, Denis
Elortza, Pello Aranburu, Xabier
Aranburu, Inma Balda, Luis Arana-
nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen
Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta
Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udalak



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Aritz Gorriti

Emozio festa handia

Urumea ondoan galde-tu zidaten. Zertan ari zarete? Eta neure artean, nola azaldu Euskal Herria ezagutzera etorri diren turistei, Donostiako Urumea ertzeko pasealekuan, ekainaren 21eko eguerdian bizitzen ari ginen une historikoa. Nahiko lan bagenuen bestela ere eta ez luzatzearen, begien aurrean erabakitze eskubidearen aldeko ekimenen parte hartzen ari zen herri bat zutela erantzun nien. Lehor edo hotz samar egia esan. Noski, adierazitako hitzok motz geratzen baitira, ekainaren 21ean Donostian eta Euskal Herriko gainerako hiriburuetan bizi izan zena deskribatzeko.

Igandekoak inor gutxi utzi-

ko zuen hotz. Milaka herritar aritu ziren eskuz josten aritutako oihal zati koloretsu eta aldarrikatzaileak eutsi eta astintzen. Irribarrea galdu gabe. Iaz bezala, baina egunerokoan gutxitan ikus daitekeen moduan, oihal katean lotuta ikusi genuen Usurbil. Eta Usurbil diogu, han baitziren haur, heldu eta gazteak, koadrilak, familiak... Adin, sexu, jatorri, pentsaera denetarikoak. Herri bat, bat eginda, irribartsu, oihalen bueltan elkartuta, oihalak astintzen, abesten, dantzan... Euren etorkizunaz erabaki nahi dutela ozen adierazten.

Anoetan bezala. Musika, dantzariak herritarrei eginiko aureskua, giza-katea, oihalak futbol zelaian zabaldu zituztenean, mosaiko erraldoia

osatu zenean edota herritarrek sarritan itsaso bihurturiko olatuak hunkidura eragin zuten bertaturikoen artean. Hango publiko artean ziren usurbildarrak. Udalerri honetako konpartasako erraldoiak baita, Anoeta barruan ospatu zen kalejiran. Eta nola ez ekainaren 21eko ekimenetan nahiz urte osoan gogotsu laguntzen lanean aritu den herriko boluntario taldea ere aldarrikapen festa handian zen. Lan bikaina eginda. Aupa zuek!

Batzuk aulki hutsak baino ikusi nahi izan ez zituzten futbol zelaietan, mugarri berri bat jarri zuen aurreko igandean, herri baten sentipena, nahia, borondatea bideratzen eta gauzatzeko lanketan ari den Gure Esku Dago mugi-

menduak. Asmatu du beste behin, sarritan urtean zehar kostatzen zaiguna; herri hau batzen, gu guztiok batzeak duen indarraz jabetzen eta gutako bakoitza herri honetako ezinbesteko kide eta partaide dela sentiarazten. Eta igandean gertatu zen berriaz. Argi dago halako egunak nahi eta behar ditugula oraindik. Batu eta borondate bera batera aldarrikatzeko, geurea den eskubidea gauzatzeko. Horregatik, bide honetan sakontzera, elkarrekin egiten jarraitzera animatzen gaituzte. Hurrengo geltokia; 2016an ospatuko diren lehen kontsultak. Geurea den eskubidea gauzatzen hastera goaz. “Gaur hautestontzia, bihar erabakia”.

Aritz Gorriti | Imanol Ubeda | Ilazki Gaintza | Luis Aranalde | Nerea Zinkunegi | Maialen Unanue | Idoia Torregarai | Joxe Piñas

“Osasun arreta euskaraz jaso ez duzulako kexarik baduzu, jakinaraziezaguzu”

Horixe da Usurbilgo Udala kide duen UEMA, EHE, Behatokia, Kontseilua, Osasungoa Euskalduntzeko Erakundea, NOAUA! kide duen Euskaltzaleon topagunea, LAB, medikuntzarako asanblada eta Berdin Elkarteak herriarrei egiten ari diren deialdia.

“Herritar eta langileoi dei egin nahi dizuegu zuen osasun asistentzia euskaraz jaso edota lanean euskaraz aritzeko zailtasun edo oztopoak baldin badituzue, zuen kasua jakina-

razi dezazuen”, luzatu dute gonbita. Kexak bideratzeko sartu euskarazbizinahidut.eus atarian eta bete bertan aurkituko duzuen formularioa. Bide honetatik, “osasun zerbitzuetako langile zein erabiltzaileei ordezkapen masiboen garaian zuen kexak egiteko bidea erraztu nahi dizuegu. Gure helburua osasun etxeetan gertatzen diren egoeren berri modu azkarrean jasotzea da”.

Mezu hau lau haizeetara zabaltzeko deia egin dute aipatu erakundeek. “Osasun alorrean hizkuntza-eskubideen urrake-

ta etengabea da eta egoera hori okertu egiten da nabarmen hainbat momentutan, zerbitzuen berrantolaketak edota langileen ordezkapenak euskara kontutan hartu gabe egiten direnean, besteak beste. Uda garaian arazo horiek handitu egiten dira. Adibidez, iazko udan langile elebidunak erdaldunekin ordezkatu ziren hainbat kasu ezagutu genituen. Aurten, egoera hori errepikatu ez dadin, prebentzio lana egin dezaten eskatu diogu Osakidetzari zein Osasunbideari”.

#Kilometroak15 zirkuituko batzordearen bilera

Datorren astelehenean, ekainaren 29an, 18:30etan Udarregi Ikastolan. 150 laguntzaile behar dituzte urriaren 4ko jaialdiko ibilbide eta guneen kudeaketa lanetarako. Herria eta herritarrek ezagutuko dituzten laguntzaileak behar dira. Batzuk izena emana dute, hauekin eta urriaren 4an laguntzeko prest zaudetenekin bildu nahi du zirkuitu batzordeak, datorren astelehenean. Gogoan izan, 5 kilometro luze eta bost gunek izango ditu ekimenak. Santuenea, Kaxkoa eta Kalezar inguruak lotuko ditu.

* Ika Mika atalarako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: uztailak 3. Idatzia ekartzeko azken eguna: ekainak 26.

“Herriko tabernak defendatzera goaz”

Gaur da eguna ez daki-guna, ezta abokatuek eurek ere, herriko tabernen konfiskazioa eta ondorioz itxiera nola emango duten. Edozein kasu basakeria judicial eta politiko honek ezin du erantzunik gabe geratu. Aitzaga zabalik nahi dugula aldarrikatzeko egunak izan behar dute honakoek, eta Aitzagaren bueltan ahalik eta elkertasun eta babes handiena eratu”, adierazi dute Usurbilgo Sortutik.



Auzitegi Gorenaren erabakia plazaratu eta denbora gutxira deitu zituzten lehen mobilizazioak.

Mobilizazioak asteburu honetan

Eleak eta Libre mugimenduek eta Espainiako Auzitegi Gorenak konfiskatzea agindu duten herriko taberna eta elkarreetako ordezkariak, beste hain-

bat lagunekin batera, datorren astebururako mobilizazioak iragarri zituzten elkarre eta tabernok dauden udalerrietan, larunbatean Zarauzko Arrano

atarian egin zuten agerraldi jendetsuan. Auzo eta udalerri bakoitzak ekimen propioak bideratuko ditu. Edozein kasutan, deialdiotan parte har-

tzeko gonbita luzatu zuten Zarauztik. “Herriko tabernak defendatzera goaz, eta defentsa horrekin bat egitera deitzen ditugu herritarrak”, adierazi zuten.

Konfiskazioak, ehundik gora

Espainiako Auzitegi Gorenaren epaia, 1936ko gerran egindako konfiskazioaren parekoa dela salatu zuten. Eta ez daudela halakorik onartzeko prest.

Ehunetik gora herriko taberna eta elkarre konfiskatzeko agindu zuen aurreko ostegunean, Espainiako Auzitegi Gorenak. Tartean, Usurbilgo Aitzaga elkarteak. Egun berean herritarrak herriko taberna atarian mobilizatu ziren.

“Ez dugu onartzen atzera pausorik aurreratatu dugunarekiko”

Markel Olano Diputatu Nagusi izendatzekoak ziren egun berean, San Juan bezperan, Errausketaren Aurkako Herri Plataformen Koordinakundea, Zero Zabor Ingurumen Babeserako Elkarteak, Ekologistak Martxan, CCOO, ESK, Greenpeace eta Eguzki, Batzar Nagusien atarian elkarretaratu ziren, beste behin, errausketari ezetz esateko. “Hemen elkartu garen eragileak kezka entzun ditugu gaurtik aurrera Ahaldun Nagusia izango den Markel Olanoren adierazpenak. Hauteskunde kanpaina aipatu zuen hondakinen errausketa berrartze-ko asmoa eta hauteskundeak pasa ondoren bere adierazpenak berretsi ditu”, azpimarratu zuen eragile taldeak, elkarretaratzean zehar eginiko adierazpenetan.

Egoera honen aurrean, argi adierazi zuten eragileak; “ingurugiroaz arduratuta gaude eta ez dugu onartzen atzera pausorik aurreratatu dugunarekiko”. Are gehiago, azken



Asteartean elkarretaratzea egin zuten Batzar Nagusietan.

lau urteotan Gipuzkoako gaikako bilketa bikoiztu ostean, “hobekuntzak exijituko ditugu”.

Azken lau urteotan, errausketaren aldeko eragileek egindako kanpaina itogarria salatu zuten. Garestia eta kutsatzailea izan eta beharrezkoa ez den arren, “Gipuzkoan errauste planta eraikitzearekin tematuta daude”.

“Ez dugu onartuko, ez handirik ez txikirik”

Proiektu hau babestu dezaketenei

zuzenduz, zera adierazi dute eragileak; “Ahaldun Nagusiak eta hau babesten dutenek garbi izan behar dute guk erraustegiaren aurkako borrokari ekingo diogula; ez dugu onartuko, ez handirik, ez txikirik. Gipuzkoarrak mobilizatuko ditugu orain urte batzuk gertatu bezala. Baina zuen asmoak ekonomia zirkular eta jasangarriaren bidetik pauso eraginkorrak ematea baldin badira, zuen lagun izango gaituzue, oraindik lan asko baitauek aurrean”.

Aisialdiko udal dirulaguntzak

Eskaerak aurkezteko azken eguna, ostiral hau, ekainaren 26a. Deialdia ikasturte honetan zehar aisialdiko begirale eta zuzendari izateko ikastaroak egin dituenari zuzendua dago.

Matrikula erdia aurreztu daiteke

Matrikularen erdia itzuliko zaie (begirale ikastaroa egin dutenei, gehienez 250 euro eta zuzendari ikastaroa egin dutenei, gehienez ere 170 euro), baldintzok betetzen dituztenei:

■ Usurbilen erroldatua egotea.

■ Ikastaroa euskaraz izatea eta Eusko Jaurlaritzak homologatua izatea.

■ Ikastaroaren alderdi teorikoa gaitzitzea eta araututako gehienezko epearen barruan titulua lortzea. Araututako epearen barnean titulua lortu ezean, itzuli egin beharko zaio udalari jasotako diru-laguntza.

Informazio gehiago: usurbil.eus edo ekainaren 2ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.

Dekalogoia, Gipuzkoa inklusiboago baten alde

Asteotan berri eman dizuegun moduan, #Kilometroak15 ekimenaren baitan bada inklusibitatea jorratzen duen batzorde bat; Guztioak Gattunk. Bilgune honek besteak beste, gizarte inklusiborako dekalogo bat landu du. Ekainaren 18an Udarregi Ikastolan aurkeztu zutena hedabideen eta dekalogoia sinatu duten Gipuzkoako 100 bat elkarte, eragile eta erakundeetako ordezkarien aurrean.

Aurkezpena ordea, ez zen dekalogoaren berri ematera mugatu, inklusibitatearen baitan eman diren urratsen eta bideratuko diren egitasmoen informazioa jaso zuten baita bertaratu zirenek.

Mugarria jarri nahi zuten aipatu ekitaldiarekin. “Gaur, hemen, inklusibitatearen ildoarekin, ikastolak eta Usurbilgo herriak ez ezik, Gipuzkoako eta Gipuzkoako hainbat eragilek konpromiso publiko bat hartzea nahi dugu: jendarte berri bat eraikitzeko lanean, kontzientzia hartzeko lehendabizi, apurka apurka bidea egiteko neurriak erabakitzea gero”, adierazi zuten. Dekalogoaren arabera, kontua ez da “pertsona ezberdin horiek jendartean integratzea”, ezauga-



Hainbat instituzioekin batera, Gipuzkoako 100 bat elkartek eta eragilek sinatu dute dekalogoia.

ri ezberdineko jendearen artean jendarte inklusibo bat osatzea baizik. Integrazioetik inklusibitateara jauzi egiteko gonbitea luzatu zitzaion Gipuzkoako herritar eta eragileei.

#Kilometroak15-etik haratago

Ez dute urriaren 4ko jaialdiari begirako konpromiso hutsean geratu nahi. Kilometroak egunetik haratago, Gipuzkoa inklu-

siboago baten aldeko apustua egin nahi dute. Horretarako, herritar, eragile eta erakundeak sentsibilizatzear gain, urrats praktikoak eman nahi dira. Udarregi Ikastolan esaterako, plan pedagogiko bat landu dute, urriaren 4ko jaia, ibilbidea edota guneak inklusiboak izan daitezen lanean ari dira, edota komun publiko unibertsal baten diseinua ere garatu dute.

Dekalogoia

1-Kontua ez da mendekotasun egoeran dauden pertsonak edo “arazoak dituzten pertsonak” gizarteen integratzea, baizik eta guztioak gaitasun ezberdinak ditugula eta guztioak osatutako jendarte inklusiboa eraiki behar dugula.

2-Hala, “arazoak dituzten horiek” eta “arazorik ez dugunon” arteko dikotomia hautsi egin behar dugu. Hemen denok gaude mendekotasun egoeran, era batean edo bestean. Elkarrendekotasuna jendartearen beraren ezaugarri zabala da.

3-Herritar gisa dagozkigun eskubideak eta aukera-berdintasuna bermatzea guztion esku dago. Hortaz, legetatik haratago, behar beharrezkoa da jendartearen eraldaketa sozial eta kultural sakona inklusiorantz.

4-Bazterketaria mota guztiak arbuizaten ditugu, izan haur, gor, nerabe, gazte, emakume, heldu, itsu, mutu, adindu, sexu orientazioagatik, erlijioagatik, gizon, etorkin, down, autismoa zein beste mendekotasun egoeraren batean dauden pertsonen aurkakoa.

5-Lan-merkatuan ere beharrezkoa da eraldaketa. Kontratu berri bat egiteko orduan arduradunek estereotipoak eta aurreiritziak sortu kezak gainditu eta soilik kontutan hartu behar dute,

guztiok gailu gaitasun ezberdinak ditugun lan-gileak eta lana ongi egin dezakegula.

6-Herritar guztioak dugu osasungintza eta hezkuntza publiko eta inklusiboaz gozatzeko eskubidea bizitza osoan zehar, geure gaitasun ezberdinak medio bazterkeriarik jasan gabe.

7-Unibertsalitatea aintzat hartu behar dugu irisgarritasunaz ari garenean eta edozein tresna, baliabide edo zerbitzu diseinatzeko orduan, oinarri oinarritik, ideiak pentsatzen hasten garen une beretik.

8-Sentsibilizazioa eta pedagogia dira jendarte inklusibo berria eraikitzeko tresna nagusiak. Besteak beste, aurreiritziak gainditu, pertzepzio positiboez jantzi eta kontzientzia soziala hartzeko.

9-Komunikabideek funtsezko erantzukizuna dute jendarte inklusiboa eraikitzeko beharrezkoa den eraldaketa sozial eta kulturean. Gida honetako eta Desgaitasunen bat duen Pertsonen Eskubideen Nazio Batuen Konbentzioko printzipioen arabera herritarren eta gizarteen irudia zabaltzera deitzen dugu.

10-Kilometroak 2015etik proposatzen ditugun printzipio hauek aplikatu, babestu eta zabaltzeko konpromisoa hartzen dugu.

Atxikimenduak

■ AEK, EHU, Emun, Ikastolen Elkartea, KMK15, Kontseilua, Mondragon Unibertsitatea, Udarregi Ikastola, UEU.

■ Gipuzkoako Foru Aldundia, Usurbilgo Udala.

■ ASPACE, ATZEGI, Caritas, ELKARTU, Gautena, GOYENETXE (GARAGUNE), Hegalak Kirol Zentroa, Hegalak Zabalik Fundazioa, Mindara, ONCE, PAUSOKA, Uliazpi.

■ ADEGI, Elhuyar, Elkar Fundazioa, EROSKI Fundazioa, GITSE/APTES, Gureak, IK4, Kutxa Fundazioa, Laboral Kutxa, MICHELIN Fundazioa, NER GROUP, ORONA Fundazioa, TECNALIA.

■ BeraBera, CD Bidasoa, Eibar Fundazioa, GBC, Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioa, Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioa, Hernani Errugbi taldea, Real Sociedad Fundazioa, Salto BeraBera saskibalo taldea, Zarautz KE.

■ Aizpurua Autobusak, Lurraldebus.

■ Donostia sustapen agentzia, Oarsoaldea Garapen Agentzia, Tolosaldea sustapen agentzia, Urola Kostako Enplegua.

■ Argia, Berria, DiarioVasco, Gara, Hamaika TB, NOAUA!, Noticias de Gipuzkoa.

■ BASERRIA XXI elkarte, ELA, HIRU, LAB.

■ Gehitu Elkartea, Irrien Lagunak, Matrakak Usurbilgo talde feminista, Ostargi Gizarte Elkartea, Usurbilgo Dantza Taldea, Usurbilgo Gazteak, Zumarte Musika Eskola.

Kiroletik, jendarte inklusiboa eraikitzen

A gian jabetu ez arren, guztioi desgaitasunak lotu eta berdintzen gaitu. Denak aurkitzen gara zerbait egin ezinik gabiltzanean, eta ikasteko denok behar dugu ondokoaren laguntza. Edo ondokoa lagundu beharrean aurkitzen gara. Desgaitasunak batu beharrean ordea, oraindik gure artean ditugun horma fisiko nahiz mentalek elkar banatzen gaituzte. Argi denez, badugu ikuskera edo pentsamoldea aldatzeko etxeko lanik egiteke.

Errealitate hau iraultzen, norbere gaitasun eta desgaitasunen gainetik, jendartean inklusioaren balorea txertatzen lanean murgildua dabil, #Kilometroak15 ekimenaren baitan osatu den Guztio Gattunk izeneko batzordea; inklusibitatea balorean jartzen eta jendarteratzen, jendarte inklusiboa eraikitzen alor ezberdinetan. Baita kirol munduan ere. Hain zuzen, eremu hau inklusiboa izan dadin ahalegintzen diren Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioko kideak gonbidatu zituzten Guztio Gattunk taldekoek, maiatza amaieran Sutegin antolatu zuten solasaldira. Federazioa ezagutzera eman eta kirola eta inklusibitateaz jardun zuten bi kideek; Jurgi Olasagasti usurbildarrak eta Amaia Elizondok.

Ezagutarazi, sentsibilizatu

Norberak dituen gaitasun eta desgaitasunen gainetik, denona da nahi dugun kirol



“Kirol jardunean, denona da gozatu edota trebatzeko eskubidea”. Argazkia: kilometroak.eus

jardueran aritu, gozatu edota trebatzeko eskubidea. Beste kontu bat da, ia benetan eskubide hori denok bermatua ote dugun. Errealitateak ezetz dio.

Desgaitasun bat izateak kirola egitetik baztertu dezake pertsona bat, konpontzeke dauden oztopo arkitektonikoenatik batzuetan, formazio egokia duten profesionalak falta direlako besteetan, edota gehienetan, buruan ditugun hormak gainditu ezinean gabiltzanez, ezin diogulako erraztu kirol jarduera batean aritu nahi duen lagunaren inklusioa.

Errealitate hau aldatzen, eta bidean suertatzen zaizkien oztopo ugariari aurre eginez dabilta egunez egun hain zuzen, eremu honetan lanean diharduten Gi-

puzkoako Kirol Egokituaren Federazioko kideak. Izenak argi dioen moduan, kirol egokitua ezagutarazten, antolatzen eta zabaltzen dihardute herrialdean barrena. Konpromiso argi batekin; pertsona bakoitzak dituen beharretara egokituko den kalitatezko zerbitzua, informazioa, orientazioa, formazioa, baliabideak eskaintzen ahalegintzen dira, kirol jardueraren batean trebatu nahi dutenei. Hastapenetik hasi eta errendimendu mailara arte.

8 langileko taldea da, dozena bat begiralarerekin. Erakunde publikoen zein elkarrekin pribatuen babesa izan arren, dituzten behar anitzei erantzun ahal izateko ez dute aski eta hortxe dabilta, laguntza gehiago lortzeko borrokan.

“Nola egin denok elkarrekin aritzeko?”

375 kirolari lizentziatu dituzte, Gipuzkoako txoko ezberdinetan osatzen joan diren talde ezberdinetan. Ezaguna izango zaizue Richard Oribe kirolaria, hark igeriketa talde bat du; Orion ere bada Berdin-Berdin izeneko taldea, IK-ONCE taldea, maiatzaren 23an Usurbilen izan ziren Salto Bera Bera saskibaloi taldekoak, Kemen Elkartea, Fortuna K.E...

Hazten doaz, baina indartzen segi nahi dute. Eragile ezberdinekin sustatzen duten elkarlanean sakondu nahi dute, “jende gehiagorengana heltzeko”. Kirol egokitua hedatzeko sentsibilizazio eta ezagutza ekimenak burutzen dituzte, ikastetxeetan bereziki. Slalom egokitua antolatu zuten Udarregi Ikastolako ikasleekin duela ez asko. Baina hezkuntza zentroetako eremuetik atera eta plazara, herriz herri Gipuzkoa osora zabaltzeko nahi dute kirol egokitua.

Terminologia egokiaren garrantzia

Aipaturiko erronkez gain, hizkuntzan ere eragin nahi dute federaziotik. Sarri ahotan modu desegokian baliatzen dugun terminologian. Ez da berdin, inklusioa edo integrazioa, eskusioa edo segregazioa, desgaitasun motak... Kontzeptu guztiok ez dira neutroak Sutegiko hitzaldian aipatzen zutenaz, denek dute definizio zehatz bat eta erabiltzeko modua ez da zuzenena izaten. Sarri ezjakintasunagatik. Baina erabiltzen ditugun neurrian, ezin ahaztu hitzaldian ziotena; oker edo zuzen, gutako bakoitzaren “pentsamendua eraikitzen goaz”. Hortik terminologia ere ezagutarazi eta egoki erabiltzeko behararen garrantzia.

Federazioak, terminologia honetatik bat hautatua du hizki larritz; inklusioa. Inklusioa, guztiok eremu bat partekatze hutsetik haratago doan kontzeptu gisa ulertuta.

Guztiok Gattunk

Oso aberasgarri eta interesgarritzat jo zuten Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioko kideek #Kilometroak15 ekimenaren baitan sortu diren lan taldeen artean, inklusibitatearen inguruan osatu den batzordetik bideratzen ari den lanketa. Eremu honetan sakontzeko beharra nabarmendu zen ekitaldian. Jendarte sare sensibleraren lortzea, “zati-ketarik ez egiteko”.

Informazio gehiago:

Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioa
Anoeta Etorbidea, 5, 20014 Donostia
943 46 25 14 gkef-fgda.org

Kirol egokituaren erakustaldia

Ekainaren 30ean, 17:30etan hasita frontoian. Emakumezkoen eta gizonezkoen pala txapelketak jokatzeko dira ekitaldiaren baitan. Eta kirol egokituko erakustaldia izango da.



SANTUENEA

IÑAKI LARRAÑAGA

Lorenzo

Badirudi euskaldunak garela eguraldiaz hainbeste hitz egi-
ten dugun bakarrak. Baina ezetz esango nuke. Normalki,
besterik ez dugunean, gai honi heltzen diogu norbaitekin
hitz egitean, eta zer esanik ez egun hauetan. Gure "Lorenzori"
asko kosta zaio azaltzea.

Baratzeei, hezurrei, buruei... eguzki izpiak falta zaizkie. Herriko festak
ere hasi dira, Sanjuanak, laster Santixabelak, eta segi eta segi. Eta hortaz
aparte, denak Kilometroak ekimenari begira, bai gure auzoan eta baita
herri osoan ere. Hau ere gainera etorriko zaigu, eta Santuenekoak prest
egongo gara egun horri aurre egiteko. Eta hor ere "Lorenzo"ren laguntza
izango bagenu...

Baina tira, ez gaitezen hainbeste aurreratu. Orain haurrak oporretan,
eta haurrak ez diren batzuk ere bai, ez da garai txarra ez, baina beno,
oporretarako ba al da garai txarrik? Ba ea, egun hauetan tomateak go-
rritzen hasten zaizkigun, eta uda, uda izaten den.

Aurreko batean, gure auzoko plazan sekulako futbol partida ikusi
nuen, 25 gazte zenbatu nituen. Denak baloiaren atzetik. Gazteak
eutsi horri!



KALEBERRI

ANA URDANGARIN

Santixabeletan ere Tonbola

Gattunk Tonbola hemen izango da be-
rriz ere Santixabel egunean umore
onenarekin. Opari berri ugari ditugu
denoi banatzeko. Oraingoan ere eskuzabal
hainbat merkatari eta Euskal Herrian zehar
ibiltzen den tonbola ibiltarikoek ere produk-
tu mordo eman baitzikigute. Kokapen estrategikoa dugu gaine-
ra, Sutegiko pasabidean izango gara oraingoan. Zuetako askok
eta askok Sagardo Egunean antolatu genuen lehenengo tonbolan
izan zineten eta badaukazue gure berri.



Oraingoan halere izango dira hainbat berrikuntza. Festa giroan
murgildu eta denak plaza ingurura etortzeko gonbita besterik ezin
dizuet luzatu. Gogo betez gaude berriz ere gure tonbola kolore-
tsuari bultzada emateko. Eskerrik asko guztioi parte hartu izana-
gatik! Ikusiko Gattunk!! Primeran pasa festak! Gora Santixabel!!!!

Oharra: Bolondresak behar beharrezko ditugu egun guztian ze-
har txandak egiteko.



AGINAGA

MARIA ANGELES ARRUTI

Errepideko egoera

Argazkian azaltzen dena Aginagako errepidea da gaso-
lindegitik, Eiza tartean dagoena. Urte hasieratik egoera
horretan dago, eta dirudienez, hainbesteko euriteekin
oraindik eta zulo handiagoa egiten ari da. Egoera ez da batere
ona, konponketak hasteko ze arrazoi dagoen ez dakit, baina
oso arriskutsua dagoela bai. Udarari sartu gara eta denok da-
kizue ze trafikoa izaten den hondartzara bidean eta benetan
istripuren bat gertatzeko aukera guztiak dauzkagu. Badakizue
bi kurba daudela alde banatara eta nahiko hurbil. Horregatik,
errepidean ibiltzen garen guztion nahia azaldu nahi dut; le-
henbailehen konponduta ikustea. Mila esker.





Zure ezkontza hondartzan, Itsaso aurrean....

- Ezkontza zibilak
- Lorategian koktelak
- Gonbidatuentzak gelak
- Menuetan aukera zabala
- Ezkongaienezak "APAINDU ZAITEZ" paka gure esku, (estetika, tasalo...)
- Ezkonberrientzat gela berezia



Herriko 40 trikitilari eta panderojole kalejiran, Santixabel egunez

Euren bizitzako garairen batean zaletasun bat partekatu zuten guztiek. Batzuk gerora utzi egin zuten afizioa, besteek segida eman diote gaur arte. Baina argi geratu denez, haietako inork ez dio sekula zaletu izateari utzi. Ikusi besterik ez dago, Santixabel eguna heltzeko zenbateko ilusioa duten. Ze gogo duten trikitia eta panderoa hartu, eta musika instrumentoi astindu ederra emateko. Kalean, herri erdigunetik barrena kalejiran ikusiko dugu uztailearen 2an, koadrila erraldoi bat. Herriko 40 lagun, aldi berean trikitia eta panderoa jotzen. Ez da egunerokoan errepikatuko den argazkia izango.



“Baten batek trikitia gordetik zuen eta berriz jotzen hasi da”, Triku bilgunetik aditzera eman digutenez.

“Ez genuen espero hainbeste bilduko ginenik”, adierazi digute. Santixabel egunerako egin duten deialdia, ezin arrakastatsuagoa suertatu zaie. “Sagastia mugitu dugu eta sagar guztiak batera erori zaizkigu”, adierazi digute. Guztira, 40 bat laguneko taldea osatzeraino.

Gozatzea helburu

Bilguneari izena ere jarri diote; Triku, Usurbil eta trikitilari hitzak lotzen dituen markapean irtengo dira kalejiran. Musika instrumentuak joz, ondo pasatzera, gozatzerara. Oholtza gainean jendaurreko emanaldiek eskatzen duten erantzukizunez zeharo ahaztuta. “Duela hiru urte, jaietan zerbait egingo ote genuen proposatu ziguten. Geundenon artean, taldetxo bat osatu genuen. Erromeria geuk egin genuen. Horrek lan bat suposatzen zuen, urduritasuna eta emanaldiaz ez gozatzea. Bigarren urtez ere egin genuen, baina gehiegizko suposatzen zuen, oholtzara igotzeak bai baitu bere erantzukizuna. Eta urtebete beranduago, profesional onak ekarri eta gu haiekin

TRIKU BILGUNEAK

“Ez genuen espero hainbeste bilduko ginenik”, adierazi digute. Santixabel egunerako egin duten deialdia, ezin arrakastatsuagoa suertatu zaie. “Sagastia mugitu dugu eta sagar guztiak batera erori zaizkigu”

ondo pasatzera joatea erabaki genuen”, kontatu digute.

“Asko, Sagardo Egunean geurenagatu genituen”

Aurten ondoen nola pasako zuten pentsatzen hasita bururatu zitzairen kalejira antolatzeara. Eta kalejiraren ideiarekin, “zergatik ez jende gehiagorengana zabaldu?” planteatu zuten. Ezagunengana jota, garai batean trikitia edo panderoa jotzen zutela gogoan zituzten lagunekin kontaktuan jarrita, edota Juan Tapia Zumarteko trikiti irakaslearen laguntzaz, heldu dira 40 lagunongana. “Asko, Sagardo Egunean geurenagatu genituen”, diote

Triku taldekoek. Batek baino gehiagok, gordea zuen trikitia atera eta berriz jotzen hasi da. Batzuk trikiti klaseetara ere itzuli dira. Guztiak ilusio handiz daude.

Halere argi dute, herritar trikitilari eta panderojole guztien-gana heltzerik ez dutela izan. Uztailearen 2ko hitzordua lotua dute, eta taldea osatua jada. Baina aurrera begira, Usurbilgo trikiti zaleek jakin dezatela; bada zaletuen sare bat Usurbilen. Hala dela frogatu nahi duenak, Santixabel eguneko kalejira ikustera gerturatu.

Eguerdiko kalejira egin ostean, bazkaldu, trikitia jotzeko tarte hartu, eta gero, txosnetan Saioa Lizarralde eskainiko duen emanaldira gerturatuko dira. “Erromerian bermatua dute 40 bat lagun parte hartzea”, adierazi digute Triku Taldekoek. Dantzara hurbiltzeko asmoa dute.

Topaketak elkartean

Santixabeletako kalejira, herriko trikitilariak soziedadean egin ohi dituzten topaketetatik dator. Noizean behin, bazkari

edo afari baten bueltan biltzen dira, izugarri bizi duten zaletasunaz gozatzeko, trikitia jotzeko alegia.

Sare sozialen bidez jartzen dute hitzordua. Teknologia berriek hartuemanetan izaten laguntzen diete honenbestez. Triku kideek ere, WhatsApp talde bat dute eta bide honek proposatzen dituzte urtean zehar biltzeko planak. Bai soziedadean topatzeko, edota “erromerirako ere biltzen gara normalean, aurretik bazkari bat eginez”. Eta hala jarraitu nahi dute, trikitixa zaletasuna bizirik mantendu eta belaunaldi berriei begira, transmisioa egon dadin bermatzen.

Egun osoko plana

Uztailak 2, osteguna
12:00 Artzabalen bildu.
12:30 Kalejira tabernaz taberna.
Bazkaria, Artzabalen.
18:30 Erromeria Saioa Lizarralderekin txosnetan.
Afaria, Patri jatetxean.
Antolatzailea: Triku Taldea.

“Gazteak herriko jaietan parte hartzera animatzen ditugu”

U surbilgo gazte mugimenduak josi du jaietarako txosnetako egitaraua. Ekimen eskaintza anitza eta parte hartzailea. “Gazteak parte hartzera animatu nahi ditugu herriko jaietan. Uste dugu azken urteetan beherakada bat eman dela gazteen parte hartzean eta berriz ere hori sustatu nahi dugu, gazteen presentzia egotea festetan. Horretan oinarrituriko egitaraua osatu dugu”, adierazi digute.

Ekainaren 30ean, gaueko 22:00etan jokatu diren futbol txapelketako gizonezkoen eta emakumezkoen finalekin abiatuko dute hitzordu festa.

Gazte Egunean, bazkaria txosnetan

Egunero egongo da jan edana txosnetan. Uztailaren 1ean, goizean txosnetan gosalduta abiatuko dira oilasko biltzera Arratzain aldera, handik, Zumitziatik barrena Kaxkora itzultzeko. Eguerdian bazkaria oilasko biltzera itrendakoentzat, eta gero jolasak. Uztailaren 3ko Gazte Egunerako ere bazkaria antolatu dute. Txartelak aurrez jarriko dituzte salgai, ohiko to-



Txosnetan gosalduta ondoren abiatuko dira oilasko biltzaileak. Eguerdian ere bertan bazkalduko dute, txosnetan.

TXOSNA BATZORDEA

“Uste dugu azken urteetan beherakada bat eman dela gazteen parte hartzean eta berriz ere hori sustatu nahi dugu. Horretan oinarrituriko egitaraua osatu dugu”

kietan. Bazkalaurretik, Gazte Eguna berrikuntzekin hasiko dute aurten. Triki poteoa antolatu izan dute orain arte. Uztailaren 3an kantuan egitera ere animatuko dira. Eta arratsaldean dantzara, Motxaila elektrotxaranga kideekin.

Santixabel egunez, Poteo “elegantea”

Jaietan txosnetan asebetetzeko beste hiru ekitaldi ere izango dira; Santixabel egunez, elegante asko jantzita poteora animatzen dituzte gazteak 18:30etan eta ondoren, paelladara. Paella egiteko azpiegitura antolatzaileek jarriko dute. Oinarritzko osagaiak ere bai. Hortik aurrera, paellari eransteko produktuak norberak eraman beharko ditu.

Uztailaren 4an, Kantu-zikiro jana

Hitzordu gastronomikoei amaiera emateko, kantu zikiro

jana uztailaren 4an, Kuxkuxtu txarangakoekin. Eta ohar bat; bazkari eta afari eskaintza zabala dela eta, aurten herri afaririk ez antolatzea erabaki dute.

Jaiak amaitzeko, patata tortilla lehiaketa

Txosnetan sukaldaturikoa txosnetan afaltzeko aukera izango da hortaz. Baita jaietako azken egunean antolatu duten patata tortilla txapelketako partaideek ere. Kasu honetan ere, sukaldatzeko beharrezko tresnak eta oinarritzko osagaiak antolatzaileen esku. Hortik aurrerakoak, lehiakideek eraman beharko dituzte.

Gaupaseroen argazkia

Nola iritsiko ote gara jaien amaierara? Argazki batean erretratatu geratuko da datozen jaietan. Gaupaseroen argazkirako deitu dituzte goizaldeko 07:00etan, uztailaren 4ko gaua, parranda giroan igaroko dituzten guztiak. Eta berrikuntza gehiago, jaietako azken goizalde horretarako. Eonian elektrotxaranga taldekoak datoz, batzuei igande goiza esnatu eta besteei etxerako bidea egiten laguntzera.

Txosnak, Mikel Laboa plazan

Jai Batzordeak astelehenean eginiko ezohiko eta premiazko bilkuran erabaki zuen, Santixabeletako txosnak Askatasuna plazatik Mikel Laboa plazara lekuz aldatzea. Honenbestez, frontoi atzealdean kokatuko da jaietako txosnagunea. Askatasuna plazan iragarriak zeuden ia ekitaldi guztiak ere, frontoi atzealdean ospatuko dira, uztailaren 4ko kantuzikiro jana izan ezik. Hitzordu hau bai, aurreko urteetan bezala, Askatasuna plazan egingo da. Beste aldaketa bat; uztailaren 4an 19:00etan Dj Burundaren emanal-



Uztailaren 1ean Skasti taldea arituko da txosnetan.

dia non izango den zehaztu gabe dator egitarauan. Dj saioa txosnetan izango dela zehaztu du Jai Batzordeak. Eta ordu bete beranduago, 20:00etan euskal preso eskubideen alde egingo den ekitaldia aldiz, Askatasuna plazan izango da.

Otsailaz geroztik Santixabelak antolatzen dabilen Jai Batzordeak ekaina hasierarako hartu behar zuen txosnagunearen inguruko erabakia. Erabakia hartzera heldu ziren, baina aldaketak izan dira gerora. “Ekainaren 1ean egin ge-

nuen bileran Jai Batzordeko kideok txosnen kokaguneari buruz genuen iritzia eman genuen, eta erabakia, ekainaren 3rako hartzekotan geratu ginen. Ekainaren 5ean emailaz bidali genuen hartutako erabakia, ustez, iritzi guztiak entzun ondoren balio zezakeen irtenbide batekin. Arrazoi ugari tarteko, hartutako bidea ez da gustukoa izan”, adierazi dute Jai Batzordetik. Horregatik, txosnen kokagunea erabakitzeko bilera deitu zuten astelehenean eta bertan erabaki zuten aurten, txosnak Mikel Laboa plazara tokiz aldatzea.

Giro ederra San Joanetako lehen egunetan



Argazkiak: NOAUAI, Elena Rikondo, Ander (mus txapelketakoak).



Mus Txapelketako irabazleak




Txapeldunak Olaizola-Murua, txapeldun orde Joxe-Belartza, hirugarren Belizano- Emilio, eta laugarren Joxian-Andoni.

ERREFUSA HAMABOSTEAN BEHIN JASOKO DA UZTAILAREN 1 ETIK AURRERA

Badakigu etxean sortzen diren hondakin gehienak birziklagarriak direla. Era berean, badakigu Usurbilgo etxeen %97ak hamabostean behin edo maiztasun gutxiagorekin ateratzen dutela KUBO GRISA.

Horregatik, igandeko errefusaren bilketa berrantolatu eta uztailaren 1etik aurrera HAMABOSTEAN BEHIN izango da Usurbilen.

Errefusa gutxiago, gaikako bilketaren emaitza hobek eta bilketa eraginkorragoa!



Etxean jasoko duzu 2015-2016ko ERREFUSAREN BILKETAREN EGUTEGIA

UZTAILA 2015 JULIO

	1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29
30	31				

ABUZTUA 2015 AGOSTO

				1	2
3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31	

IRAILA 2015 SEPTIEMBRE

1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30
31					

URRIA 2015 OCTUBRE

	1	2	3	4	
5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28
29	30	31			

AZAROA 2015 NOVIEMBRE

				1	
2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	

ABENDUA 2015 DICIEMBRE

1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30
31					

Usurbil
osasuna atez ate

Igandetan, goizeko 09:00etan, hasten da bilketa. Ordutegia alda daiteke herriko jaietan eta antzeko bestelako egoeretan.

900 776 776

**ATEZ ATEKO
INFORMAZIO BULEGOA**

Puntapax kalea, 10 • 10:00-13:00 / 16:00-19:00 (astelehenetik ostiralera)
900 776 776 (doako telefona) • atezate@usurbil.eus • www.usurbil.eus



Usurbilgo Udala

Borondateak elkartzen gaitu,



herri izan nahiak...



Pagazpe, estreinakoz, Berria txapelketako finalean

Hamasei talde ziren txapelketa hasieran, eta kanporaketa guztietan gailendu eta gero, Berria Txapelketako finalera iritsi da Usurbilgo Pagazpe pilota elkar-tea. Andoaingo Gaztelekuri 2-1 irabazi ondoren lortu zuen finalerako txartela. Larunbat honetan jokatu dute finala, 17:00etatik aurrera Hernaniko pilotalekuan. Markina izango da aurkaria.

Usurbil-Andoaingo final-aurrekoa:
Aranguren-Odriozola (Pagazpe) 22
Alberdi-Aizpitarte (Gaztelekuri) 5

Gazteak:
Aranberri-Exposito (Pagazpe) 0
Aizpurua-Usandizaga (Gaztelekuri) 22

Nagusiak:
Santxo-Gorrotxategi (Pagazpe) 22
Eskudero-Erasun (Gaztelekuri) 12



Finala larunbatean jokatu dute, Hernaniko kiroldegiko frontoian. 17:00etan hasita.

Berriaren web orrian irakurri dugunez, “kanporaketa hasi baino lehen, gauza jakina zen oso zaila izango zela kadeteen arteko partida, eta halaxe gertatu zen. Azken uneko lesio bat tarteko, Gaztelekuko Osa aurrelaria deialditik at geratu zen, eta horrek erabat bal-

dintzatu zuen lehia. Haren lekua Alberdik hartu zuen, eta kunplitu zuen arren, hark eta Aizpitartek ezin izan zuten ezer egin Arangurenen sasoiaren aurka. Usurbildar aurrelaria jaun eta jabe izan zen.

Puntu hori premiazkoa zuen. Izan ere, gazte mailan ez aur-

keztua egin zuten usurbildarrek. Pilotari kopuru nahikoa ez eta, ezin izan zuten gazte-etan inor kantxaratu, eta 22-0 galdutzat eman zuten lehia.

Ondorioz, hirugarren partidak erabakiko zuen guztia. Faborito argiak ziren usurbildarrek, baina ederki sufritu behar izan zuten garaipena lortzeko”.

Berria Txapelketako Finala

- Ekainak 27 larunbata, 17:00h
 - Hernaniko kiroldegiko frontoian.
 - Pagazpe (Usurbil)-Markina.
 - Pagazpe taldeko ordezkariak:
- Kadeteetan:
Hodei Exposito - Aitor Aranguren
Jubeniletan:
Jon Aranberri - Imanol Odriozola
Nagusitan:
Xabier Santxo - Aitor Gorrotxategi

Gazteak ere bikain Buruntzaldeko pilota txapelketako finaletan

Aurreko larunbatean, ekainaren 20an, Buruntzaldeko pilota txapelketako finalak jokatu ziren Usurbilgo pilotalekuan. Iñaki Agirresarobek argazki hauek igorri dizkigu. Eta ondoko hitzok: “benjamin, infantil, kadete eta jubenil mailan jokaturiko finaletan hiru bikote usurbildar baziren eta horietatik bat txapeldun geratu zen. Bestalde, urdaiazpiko bat zozketatu zen eta Harbil Jauregiri egokitu zitzaion”.



Infantil mailan, Eneko eta Alain 16, Aitor-Peru 11. Harbil Jauregiri urdaiazpikoa tokatu zitzaion zozketan.



Aitor eta Peru txapeldunorde izan ziren. Benjamin mailako lehen urtean ere, Hodei eta Unax finalera iritsi ziren eta txapeldunorde amaitu dute.

Udafesta Gaztelekuan

Jaietarako soilik ez, uda partetarako aisialdi eskaintza zabala antolatu du Gaztelekuak, DBH-ko gazteentzat. Ikusi agenda:

Ekainak 25 osteguna

16:30 Kamiseta estanpazio tailerra DBH2-koentzat Gaztelekuan.

Ekainak 27 larunbata

16:00 Film proiektzioa DBH1 talde-koentzat Gaztelekuan.

Ekainak 29 astelehena

16:30 Munduko jolasen txapelketa talde guztientzat.

Uztailak 2 osteguna

16:00 Gaztetxer txapelketa Artzabal.

Uztailak 4 larunbata

16:00 Ur Ginkana Artzabal.

Uztailak 7 asteartea

Donostiako irlara DBH2 taldekoekin.



Donostiako irlara joango dira uztailaren 7an asteartea.

Uztailak 9 osteguna

Gamarrara DBH2 taldekoekin.

Uztailak 13 astelehena

Hernaniko igerilekura DBH1-ekoekin.

Uztailak 14 asteartea

Bilbora DBH3 taldekoekin.

Uztailak 16 osteguna

Zarauzko hondartzara DBH1-ekoekin.

Uztailak 20 astelehena

Igeldora DBH2 taldekoekin.

Uztailak 21 asteartea

Kars-etara DBH2 taldekoekin.

Uztailak 23 osteguna

Agur festa gazte guztiekin.

Informazio gehiago Gaztelekuan: gaztelekua@usurbil.eus

Ibilgailu Klasikoen I. Topaketa Usurbilen

Uztailaren 11n ospatuko da. Egitaraua lotu dute jada:

Uztailak 11, larunbata

09:30 Irteera Usurbilgo Saizar sagardotegitik.

10:00 Usurbilgo inguruetan ibilgailuen martxa.

12:00 Ibilgailu klasikoak Usurbilgo Dema plazan sartuko dira.

Ondoren, hamaiketako doan.

14:30 Bazkaria Saizar sagardotegian.

Azken ostiraleko elkarretaratzea

Euskal presoen eta senideen eskubideen aldeko hileroko mobilizazioa ostiral honetan, ekainaren 26an, 20:00etan Mikel Laboa plazan. Santixabeletan deialdi gehiago. Euskal presoen eskubideen aldeko jaietako ekitaldi berezia, uztailaren 4an, 20:00etan hasita txosnagunean.

'Museoberri' ireki dute Aginagako Herri Eskolan

Aginagako Herri Eskolan, animaliei buruzko proiektuari amaiera emateko museo bat zabaldu zuten: Museoberri. "Ikasleen artean beraien lanak aurkezteko eta azaltzeko ipini zuten, aginagatarrei irekia egon dena".

Luciak eta Gurutzek aditzera eman digutenez, "museotik ibilbidea egin ondoren ikasle, irakasle eta familien artean animalien sailkapenaren eskema osatu genuen".



Ikusten den moduan, ikasturte amaiera biribila izan dute Aginagan.

Ikasturte amaierako bazkaria

Ekainaren 19an amaitu zuten ikas-



turtea Aginagako Herri Eskolan. "Amaiera emateko eliza zaharrean bazkari batekin bukatu genuen, ikasle, irakasle eta familiekin", eskolatik aditzera eman digutenez.



Zorionak udan urteak beteko dituzuen ikasle guztiei: Intza, Nagore, Imanol, Enaitz, Pablo, Malen, Ignacio, Irati, Izarraitz, Unax, Alex, Daiana. Muxu potolo bat ikasle, irakasleen partez.

ARGILAN
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
629 272 859 eta 943 36 13 80
BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL

Kima
MASAJE LEKUA
· KIROLO MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA
Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

Festa giroan igaro zen Usurbil KE-ren denboraldi agurra



Jolasean aritzeaz gain, sariak ere banatu zituzten aurreko larunbateko ospakizunean.

Oiaro Kiroldegi barruan hasi zituen larunbatean, Usurbil Kirol Elkartek bere 2014-15 denboraldi amaierako ospakizun eguna. Lagun arteko eskubaloitako partidak jokatu zituzten egun osoan zehar. Gauean, afarietarako bildu ziren, jokalariek, entrenatzaileak, delegatuak edota zuzendaritzako kideak.

Gipuzkoako Eskubaloien Federazioak denboraldi honetan nabarmendu diren kirolariak saritzeko ekitaldia egin zuen aurreko ostiralean Anoetako Kirol Etxean, eta Usurbil KE-ren hilabeteotako garaipenak omendu zituen.

Gogoan izan, Gipuzkoako txapeldunak ditugula jubenil mutilak eta neskak, eta kadete

neskak. Gipuzkoako txapeldunordeak, kadete mutilak. Talde guztiok saritu zituen.

Denboraldiko goleatzaile onenaren saria jaso zuen baita jubenil nesketan, Usurbil K.E.-ko Ane Encina Alvarezek.

Kiroltasun sariak berriz, kadete nesken ordezkari Mikel Alzagak eta Joxelu Zabalak. Zorionak!

Usurbil FT-ren denboraldi amaiera

Ekainaren 20an ospatu zuen Usurbil F.T.-k bere eguna. Antolatzaileek Mikel Laboa plazan prestatutako jokoetan primeran pasatzeko aukera izan zuten taldeko gaztetxoek goizean. Eta Askatasuna plazan bildu ziren gero, bazkari eder askoa dastatzeko. Iluntzean, jokalariek, entrenatzaileak edota zuzendaritzako kideak afari baten bueltan bildu ziren Atxega jauregian. Ospakizunok borobildu dute futbolariak 2014-15 denboraldia.



Askatasuna plazan egin zuten bazkaria.

Euskarako udal dirulaguntzak

Eskaerak aurkezteko epea: ekainaren 25etik uztailaren 8ra.

Eskariak aurkezteko lekua: udal erregistroa.

Onuradunak izateko baldintzak:

- Usurbilen erroldatua egotea.
- Gutxienez, ikastaro osoan zehar, %80ko asistentzia izatea. (Autoikaskuntzaren kasuan aprobetxamendua ziurtatzea).
- Gutxienezko aprobetxamendua gainditzea: (Euskaltegiak egindako ziurtagiriaren bidez egiaztatatu beharrekoa).

Diru-laguntzen zenbatekoa:

- Gehienez, 500 euroko dirulaguntza.
- Ikasle arrunta: gehienez ere matrikula kostuaren %80ko dirulaguntza (Euskaltegi 109. urratsa edo HABEren 2. maila arteko baliokideak diren ikasketak gainditu dituen ikasleak) edo %60ko dirulaguntza (hortik gorako ikasketak gainditu dituenak) jasoko du.
- Ikasle langabetua: gehienez ere matrikula kostuaren %100eko dirulaguntza (Euskaltegi 109. urratsa edo HABEren 2. maila arteko baliokideak diren ikasketak gainditu dituen ikasleak) edo %80koa (aipatu mailetatik goragoko ikasketak gainditu dituenak) dirulaguntza jasoko du.
- Informazio gehiago: usurbil.eus edo ekainaren 2ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.

Jaietan, herri kirolak

Uztailaren 4an larunbata, harri-jasotzaileak eta Gipuzkoako 2. Mailako Aizkolari txapelketa (gizonezkoak) iragarri dituzte. 18:00etan hasiko dira.

Uztailaren 5ean igandea, idia dema eta Idoia Etxeberria eta Estitxu Almandoz harri-jasotzaileak. 18:00etatik aurrera.



Estitxu Almandoz eta Idoia Etxeberria harri-jasotzaileak.

Hiru Erregeen Mahaira, Euskal Herriko mendirik garaienara



Lokiz mendizerran izan ziren duela gutxi. Santixabel jaien ondoren, Hiru Erregeen Mahaia-Anie irteera osatuko dute, uztailaren 11 eta 12ko asteburuan hain zuzen. Izena emateko epea uztailaren lehenera arte egongo da zabalik.

Uztailaren 11n Lescun herritik abiatu eta Hiru Erregeen Mahaia igo ondoren Linzako aterpe-
ra joango gara. Eta uztailaren 12an La Pierre de St. Martinetik abiatu eta Auñamendi-Anie mendia igoko dute, Andatzatik aditzera eman dutenez.

Bi eguneko irteera

Hiru Erregeen Mahaia-Anie

■ Noiz: Uztailak 11-12.

■ Irteera nondik: Oiardo Udal kiroldegitik.

■ Ordua: goizeko 6:00etan.

■ Garraioa: Autobusez.

■ Ibilbidea:

Uztailak 11 larunbata:

Lescun-Hiru Erregeen Mahaia.

Linza : 6,5 ordu.

Uztailak 12 igandea:

La Pierre de Saint Martin -Anie- La Pierre de Saint Martin: 5,5 ordu.

■ Aterpea: Linzako aterpea (afaria, loa eta gosaria). Autobusa bertaraino joango da.

■ Izen-ematea: Andatza MKTko kontuetan.

Rural Kutxa:30080259163005430321

Kutxabank:20955069071068489805

Noiz: Uztailaren 1 baino lehen. Izena ematerakoan ordaindu behar da: 38 euro.

■ Plaza mugatuak.

■ Koordinazio bilera: Uztailak 9 osteguna, 19:00etan Sutegin.

■ Informazio gehiago: www.andatza.com

■ Oharra: Andatza Mendizaleen Kirol Klubak antolatzen dituen irteeretan parte hartze-ko derrigorrezkoa da mendiko federatua izatea eta aseguru txartela indarrean edukitzea: "Federatu gabe dagoenari tramitea egingo diogu, hala nahi badu. Horretarako gure web orrian aurkitzen da egin beharrekoa, edo gurekin jarri harremanetan andatza@hotmail.com helbidean. Komeni da ahalik eta azkarren egitea".

Ekainaren 30ean, Emakumeen Pala Txapelketako finala

Azken txanpara iritsi da Usurbilgo Emakumeen Pala Txapelketa. San Juan egunarekin jokatuko dira finalerdiak eta finala, aldiz, ekainaren 30ean asteartea.

Lau dira izena eman duten biko-

teak: Maider-Laxarte, Arruti-Zuriñe, Alaitz-Garazi eta Miriam-Miren.

Finala ekainaren 30ean jokatu-
ko da, 17:30ean hasita. Kirol egokituen erakustaldia eta gizonezkoen finala ere egun horretan izango dira.



Finalaurrekoa aldiz, ekainaren 24an.

Futbito Txapelketako finalak

Futbito txapelketako finalak ekainaren 30ean jokatu-
ko dira, asteartean, gaueko 22:00etan.

Santixabeletako

Pilota txapelketa

Finalerdiak

Ekainak 24 asteazkena 19:00h

Nagusiak 2. maila

Maiz-Erreka/Lertxundi-Katalina

Ekainak 26 ostirala, 20:00h

Nagusiak 1. maila

Otxandorena-Landiribar/Urbieta-Elola

Finala

Uztailaren 2an, 17:00etan.

Munduko Kayak Surf Txapelketara

"Aurten ere Euskal Herriko Kayak-surf Selekzioarekin joateko aukera suertatu da. 7 eguneko txapelketa luze eta gogorra izango da, ekainaren 28- uztailak 5 artean, Munduko Kayak Surf Txapelketa Pantin hondartzan. Mundu osoko kirolariak izango dira bertan, eta nola ez, haien artean gu ere bertan izango gara, beste urteetan lortu duguna ez galtzeko asmotan. Gogo handiz entrenatzen nabil egun hauetan, egunero egunero, gogorra egiten ari da, baina esperantza dut esfortzuak emaitzak emango dituela", hala adierazi du sare sozialen bidez Garazi Iturralde zubietarrak. Xabier Olanorekin eta Euskal Herriko Kayak-surf Selekzioko gainerako kideekin, Galizara doaz asteburu honetan, Munduko Txapelketa parte hartzera. "Ez baduzue planik, Galizara azaldu selekzioari animatzera!", animatzen du Garazik.

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

TAXI
24h

ORAIN 8 PLAZA!

677 37 34 66 Joxe
943 36 21 78 Etxabe

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

ETXEBIZITZA

Salgai

Atikoa Zubietan, 110m2 erabilgarri. 2008-an guztiz berritua, teilatuaen estruktura ere. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2-ko egongela. Haize egokitua. 225.000. 669781959 Julien

Pisua salgai Santuenean. Egoera onean. 3 logela, sukaldea, komuna eta nahi izan ezker garaje moduko batekin. 659 460 979.

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosi nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Pisu bat salgai Erreka-txiki kalean. Sukalde-egongela, 2 gela, komuna, balkoia. Ganbara egongelarekin lotua. Garaje itxia barne. 210.000 euro. 656716844 Enrike

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Usurbilen edo inguruan eraikigarria den lur eremua erosi nuke. 636393237

Pisua salgai, Artzabalen. 3 logela, 2 komun, terraza eta trastelekua (altzariekin) eta garajea (2 kotxerentzat). 657 771 126

Etxea salgai (Kutxa gainean). 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, trastelekua. Dena kanpoaldera. 222.000 euro. 607 572 106

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komuna eta sukaldea. 163.000 euro. Tel. 646 663 405.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaiaigan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m2. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, eskilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Etxebizitza salgai Zubietan. 1. Esk. 118 metro koadro, baratza 2.500 m eta oilategia 140 m. Erreformak egiteko. 200.000 euro. 616 649 674 Jabier.

Pisua salgai edo alokairuan Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erre-

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

formatzeko, prezio onean, auzo-
ra ezin hobea. Inaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta, dena itxia. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezetatan.

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur sailean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

Alokairuan

2 lagunentzako alokairuko pisu bila. Behoko solairua eta terrazaduna bada hobe. 610 73 59 64.

Atxegalden etxe bat, 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela, estudioa, argitsua, sartzeko prest, berogailu zentralarekin, 670 410 273

Gela bat alokatzen dut Erreka-Txiki. 665319105 / 943367232

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. Prezio ona. 657 535 299.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737

Pisu baten bila nabil, txikia eta

merkea. Txakurra daukat. 682 214 506.

Emakume bat gela baten bila dabil partekatze 17:30-18:30 deitu (Marisol). 674463942

Hiru gelako pisu bat alokagai Erdialdean. Igogailuarekin, guztiz kanpoaldera. 630 713 583.

2 logela alokatzen dira kontratu eta eroldarekin, Usurbilen. 631 411 867.

Bikote gaztea, gela bat edo biko pisu bila. Nominak ditugu, mas-kotarik ez. 686 056 040 (Maria-no).

Gela baten bila nabil, partekatutako pisu batean. Tel. 619 817 460.

Lasarte edo Usurbil aldean pisua partekatze pertsona baten bila nabil. Prezio ekonomikoa! 646305465

Pisu bat bilatzen dut alokairuan Usurbilen. Tel. 602 127 725.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Garajea aukeran. Prezio ona. 657 535 299.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Baju komertzial bat salgai erdiko kalean. 62 metro koadro, solairuarte batekin. 600 369 013 / 943 371 827

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Erreka-txiki-Puntapax-etik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santu-Enea auzoan 671547567

Kawasaki Vulcan 500eko motorra duena salgai. Prezio onean. 667 055 553

Garaje bat alokatzen da, Zubiaurrean 10ean. Tel. 620 024 663.

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Garaje itxi bila nabil. Motorra uzteko izango litzateke. 645720571

Kale Nagusian garaje itxi bat alokatzen da. 943361235

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro karratukoak. Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Pertsona bat behar dugu asteburutan lan egiteko. Euskalduna eta esperientziarekin. Utzi kurrikulum-a Laukoten.

Txapeldun taberna alokairuan edo salgai: 676 976 005.

Urte osorako zerbitzari euskalduna behar dugu Aginaga sagardotegian, asteburuetan lan egiteko. 943 366 710

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Lan bila nabil. Interna moduan ere bai. Asteburu eta jai egunetan ere lan egingo nuke. Tel. 676 188 411

Lan bila nabil. Interna moduan eta umeak zaintzen. Tel. 645 530 490

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketan. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak ditut. Esperientzia biltegiko lanetan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 631 321 981.

Erizain laguntzaile tituluduna eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mutila, pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Interno moduan edo nahi den bezala. Badaki etxeko lanak egiten. 687 348

223.

Pertsona helduak zaintzen esperientzia asko duen mutil bat, lan bila dabil. Gauetan, orduka edo asteburutan. Tel 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan, orduka edo asteburutan lan egiteko neska bat eskaintzen da. Paperekin eta esperientzia askorekin. Gomendio askorekin. 638 602 597.

Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko. 695 602 828.

Latina, frantsesa, ingelesa, euskarra klaseak ematen dira, etxean. Ekonomikoa. 600766068

Arratsaldetan pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 30 urteko esperientzia. 682 214 506.

Lan bila nabil. Garbiketan, plantatzeko eta interna moduan ere bai. Larunbat, igande eta jai egunetan ere prest nago. 676 188 411.

Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Pertsona helduak gauetan zaintzeko ere bai. 943 045 428.

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egin eta umeak eta helduak zaintzeko. Feli-gatik galdetu. 620 625 823.

Erizain laguntzaile bat eskaintzen da esperientziarekin. Pertsona heldu ezinduek edo amaieran dauden pazienteak zaintzeko. Etxean zein egoitzetan. 943 365 079 / 635 715 142.

Neska bat eskaintzen da garbiketa egiteko, pertsona helduak zaintzeko... Esperientzia, erreferentzia eta papela. 618 889 530.

Lan bila nabil. Orduka, umeak edo helduak zaintzen, etxeko lanak egiten... Interna moduan ere bai. Erreferentziak. 656 186 617.

Lan egingo nuke. Garbiketan... orduka. Gauetan pertsona helduekin lo egiteko edo zaintzeko edo konpainia egiteko prest nago. Tel. 676 188 411.

Emakume euskalduna eskaintzen da ume txikiak zaintzeko edo garbiketak egiteko. Irailetik aurrera. Arduratsua. 671 547 567.

Mutil gazte bat eskaintzen da, ingelesa, frantsesa, latina, filosofia emateko. Merkea. 600 766 068. Jokin

Emakume euskalduna adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile titulua-



Axel eta Maddi, ekainaren 27an 4 urte! **Zorionak** aiton-amonen partez, muxtuak eta ondo ospatu!



"Zorionak bikote!!" Dagoeneko launa urte! Ospatuko deue elegante!"



Zorionak Olatz! Uztailaren 4an, 11 urte beteko dituzu.

Ondo ondo ospatuko dugu. Muxu asko denon partez.



Zorionak Daniel! Uztailaren 11n 5 urte beteko dituzu,

zorionak maitia. Ondo pasa eta muxu potolo bat etxekoan partez.



Zorionak Anje! Ekainaren 24ean, 8 betetzen dituzu.

Muxu pilo bat, Unax, Oihan, June eta Aratzen partez!



Zorionak Noa! Uztailaren 3an 6 urte beteko dituzu.

Muxu pottolo pottolo bat amatxo, aitaixo eta Araiaren partez. Mua!!

rekin 688826968.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen prest. Interna bezela ere. Edozein ordutegi. 608299579

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientziarekin. 722 575 781.

Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientzia eta papelekin. 690146067.

Mutil bat lan bila dabil helduak zaintzeko edo baserrian lan egiteko. 690146067.

Interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen. Esperientzia daukat. Ezagutza, sukaldaritzan, garbiketari... 604148284.

Lan bila nabil. Esperientzia sukalde laguntzaile bezela, zerbitzari bezala, garbiketan, karga eta deskargan, frutadendan... 663 447747.

Lan bila nabil, orduka edo interna moduan. Garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko. 631 277 061

Gidabaimen guztiak ditut, baita garabi eta orgatilara ere. Lan prebentzioko ikastaroa daukat. Esperientzia altua. 657 535 299.

Lan bila nabil. Interna moduan nahiago. Esperientziarekin, eta papelak egunean. 680 804 124.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Xiomara. 631 193 521.

Emakume euskalduna gertu interna joateko moduan. Klinika laguntzaile titularekin. Tel. 688 826 968. Deitu: 17:00 - 19:00, eta larunbata 15:00 - 19:00.

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziekin. 631 333 251

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziekin. 653 620 770

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta hau-

rrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziekin. 672 740 521

Pertsona helduak zaintzeko, interno eta orduka. Gauak etxean edo hospitalean pasatzeko. Esperientziarekin. 648 761 874.

Paperak ongi dituen neska bat lan bila dabil, etxeko lanak egiteko, orduka. Esperientzia handia. Erreferentziekin. 638 602 597.

Neska euskaldun batek lan egingo luke arratsaldetan, 4 ordu, helduak zaintzen. 626 735 354.

Emakume bat lan bila dabil etxe batean bere seme-alaba gaztee-kin bizitzeko. Lasarte edo Usurbilen. 689 344 946.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka...Paperak ongi eta erreferentziak (umeak zaintzen, garbiketan eta ostalaritzan) 698 322 406.

Lan bila nabil, sukaldari, zerbitzari, gidari laguntzaile moduan edo garbiketa industrialean. Paperak ongi. 688 268 625.

Goizez lan egingo nuke garbiketa

lanetan edo umeak edo helduak zaintzen. 661 378 340.

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularrek emateko prest. Euskara: EGA titulua (goi maila) Ingelesa: Advanced titulua (goi maila) Frantsesa: Goi maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, gertu interna bezala joateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile titularekin. 619511789 / 943 760418.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeak garbitzen, sukaldeko laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketan edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

Neska arduratsua lana bilatzen du interna moduan eta etxeko garbiketarako egiteko. 631 122 350.

Etxeak margotu eta dekoratzen ditut. Paisaiak, aur-

pegiak... agertzen diren koadroak egiten ditut. Altxariak konpondu. 634 181 059.

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 608 34 04 84

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. 696 83 55 69

Usurbilgo neska euskaldun bat eskaintzen da arropak konpontzeko eta goizez etxeak garbitzeko. 696 601 795

Klase partikularrek ematen ditut, L.H-DBH. Irakaskuntza ikasketak bukatzeaz eta lan honetan esperientziaduna.(618598071 Izaro)

Zerbitzari moduan, helduak zaintzen, umeak zaintzen edo saltzaile moduan lan egingo nuke. Tel. 690 079 418.

Udan edo ikasturtean zehar umeak zainduko nituzke. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintzan graduatua naiz eta gaixo dauden pertsonen erizain zainketak emateko prest nen-

goke. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaindu zein klase partikularrek emateko prest nago. Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

BESTELAKOAK

Haur-sila bat salgai. "Bebe confort" marka LA modeloa. Beltza eta berri-berria dago. Burbuja eta eguzkitakoarekin. 666 373 665.

Geltokiaren ondoan "skate" egiteko patinete bat aurkitu dut. Galdu baduzu deitu 943 362 088.

Giltza batzuk galdu ditut DIA supermerkatu inguruan. Diru-zorro beltz batean, eta 4 giltzeekin. Aurkitu badituzu udaltzaingora eramatea eskertuko nuke.

Artzabal inguruan gitarra bat galdu dut. Aurkitu baduzu deitu zenbaki honetara. 608 566 683.

Hiru plazako eta bi plazako sofak salgai, larrukoak, egurrezko ertze-kin. Egoera onean, 500 euro negoziagarri. usurbil72@hotmail.es

Usurbil, Zubieta edo inguruan, 15.000 m lur saila alokatuko nuke. Enara: 647 438 895

Hemengo urra erosiko nuke. Deitu 634 409 888.

Sofa-ohet bat salgai. 70 euro. 655 731 915.

Denborarik ez baduzu zure maskota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. Asteburutan. 688888176. Pablo.

Mutil gazte bat prest dago, rotabatorearekin lurra biratzeko eta eskuz buelta emateko lurrari. Prezio ekonomikoa. 610 14 19 40

Gidari arduratsu bat eskaintzen da etxe pribatu baterako. Libre ordu desberdinetan. 696264197.

Aurtengo eta hemengo baba-rrunak salgai, artoarekin batera eginda. 637974994

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelhe- netik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Oa botika.....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arretoa ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiaro Kiroldegia.....	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Guipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK eskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneke Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salvatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 25	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Ostirala 26	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Larunbata 27	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Igandea 28	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Astlehena 29	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Asteartea 30	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Asteazkena 01	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte

Ekainak 25-uztailak 05

Osteguna 02	RODRIGUEZ	Kale Nagusia 42. Lasarte
Ostirala 03	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Larunbata 04	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loiola 9. Lasarte
Igandea 05	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loiola 9. Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behe, Hernani. 943 55 20 87
22:00 - 09:00

Agenda

26 ostirala

- Bertso saio musikatua: Santixabel Ber-tsoaper Lehiaketa 19:30 Sutegin.
- Elkarretaratzea, euskal presoen eta seni-deen eskubideen alde 20:00etan Mikel Laboa plazan.

27 larunbata

- Usurbil Cup amaiera, egun osoan.
- Uda festa Gaztelekuan: Pelikula. 16:00etan Gaztelekuan.
- Santixabeletako argazki diaporama. 18:00etan Sutegin, Iñaki Agirresarobe.

28 igandea

- Erakusketa Sutegin. "Transexualitatea ikusgai, ikasgai".

Azken 30 urteotako jaien inguruko diaporama, larunbatean Sutegin



Iñaki Agirresarobe hiru hamarkadetan zehar eginiko irudiak batu eta diaporama berezia prestatu du. Larunbat honetan, arratsaldeko 18:00etan eskainiko du Sutegin.

"Hiru hamarkada horietan bilduriko argazki sortarekin erakusleho izan nahi du diaporamak", Agirresarobek berak aditzera eman duenez.

Transexualitatearen inguruko erakusketa

"Transexualitatea ikusgai, ikasgai" ekimena antolatu du Usurbilgo Sexu Aholkularitza Guneak, ekainaren 28an ospatuko den Harrotasun Egunari begira. "Errespetuz, gizon transexualak" erakusketa, transexualitatea ulertu eta errealtate honetara hurbiltzeko arreta zerbitzua edota

ikus-entzunezkoen proiektzioak programatu dituzte ekainaren 29ra arte Sutegin. "Gure kolektiboaren gainean dauden estereotipoak apurtzera zuzenduta dogoen erakusketa bat da. Erakusketa hori kolektibo transexualaren gizarte-normalizazioz joateko urrats bat gehiago da".

Datozenak

Badator "Laboaren uztaila"

Iaz bezala, bakarlari eta talde txikien musika entzuteko aukera Santixabelen ostean, uztaila ostegun arratsaldetan. Gaur egungo bakarlari euskaldunak ezagutaraziz Mikel Laboa oroitu duen ekimen sorta. Emanaldi egunak finkatu ditu Usurbilgo Gaztelekuan: kontzertuak uztailaren 9an, 16an, 23an eta 30ean izango dira. Mikel Laboa plazan noski. Momentuz lotuak dituzte hitzordukoak:
-Uztailak 9, 20:30 Afari beganoa + MMata-rrak bikotearen poesia errezitaldi musikatua.
-Uztailak 16, osteguna 21:30etan. Mikel Laboa plazan. MARA bakarlariaren saioa.

Larunbatez ospatuko da jaietako Kontzertu Gaua

Urte luzez ostiraletan antolatu ohi den kontzertu gaua, oraingoan larunbatez ospatuko da. Uztailaren 4an, 23:00etatik aurrera, Izeberg usurbildarrak, Habeas Corpus eta Betagarri frontoiko oholza gainean. Erromeria ostiraletan izango da, 22:30etatik aurrera frontoian, Boston Jai taldearekin.

Jubilatuen bazkarirako txartelak salgai

Bazkaria, uztailaren 5ean ospatuko da, 14:00etatik aurrera Atxegan. Txartelak salgai, Gure Pakea, Gure Elkartea eta Arraten, eta Gizarte Zerbitzuetan, ekainaren 25era arte. Prezioak: 60-65 urte artekoentzako 20 euro; 65 urtetik aurrera 10 euro.

Zuri arrain
iturgintza

TEL: 678 45 31 48 • ZUBIETA
zuriarrainiturgintza@gmail.com

GERAR
BARNEALDEKO PINTURAK
PAPEREZTATU, LISOAK...

USURBIL 630 70 20 10

ELORZA
O BRAK ETA
ERREFORMAK S. L.

661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com



NOAOA BIDAIAK
GRUPO CLICK VIAJA

ERRESERBAK ETA INFORMAZIOA

943 373 613

info@noaoabidaiak.com



eskeintza gehiago

www.noaoabidaiak.com

Hipodromo Etorbidea N°10
20160 Lasarte Oria Gipuzkoa

PSU
serigrafia



serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL

g!UNK
KILOMETROAK 2015 USURBIL



USURBILGO JAIETAN (uztailak 2)

•Tokia: Sutegi aurrean • Egun osoz

•Opari bereziak: bizikleta, errealeko baloi eta kamiseta sinatuak, telebista, afariak, Pirritx, Porrotx eta Marimototxean opariak, koadroak, nekazal etxean asteburua...

Udarregi

IKASTOLA



Ono paga sant☆xabeLak!!!

☆xabeL